# BEHATXULOTIK

*Juantxo EGAÑA*



JESUS ELOSEGI. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

## URBASA MENDILERROA, ARDI GAZTAREN ELABORAZIO FASEAREN LEKUKO

Urbasa mendilerroa, 1956. urtea. Victoriano Aramendiaren sendia da argazkian agertzen dena, Atarrondo mendiartean duten bordan. Ardi gaztaren elaborazio fase betean aurkitzen dira, bere usain eta itxuragatik hain ezaguna den gaztaren elaborazio fase betean. Gazta bakoitzeko sei eta zazpi litro esne artean behar izaten zituzten, eta eskuz jezten zituzten ardiak martxotik uztailera bitartean. Negu partean ibarrean bazkatzen zuten ardiek, eta altura handiagoko zonaldetara igotzen ziren gainerako urtaroetan. Jesus Elosegik, argazkiaren egileak, bikain ezagutzen zituen Urbasa eta Aralarko mendilerroak, eta bere argazkien artean hainbat dira artzaintzarekin zerikusia dutenak.